# SAILAREN MEMORIA

**Azpiprograma**: **01 Agiritegiak**

## I. MEMORIA

Hauek dira Agiritegi eta Liburutegi Zerbitzuaren helburu nagusiak: Historia eta administrazioaren agirien eta biografia-ondarearen eta, oro gar, ondare grafikoaren (argazkien, mapen, planoen, txartelen, etab.) tratamendua, antolaketa, deskribapena, zaintza eta zabalkuntza.

Funtsak lantzean, antolakuntzako eta deskripzioko teknika berezi batzuk baliatzen dira; eta, une honetan, lehen deskribatutako funtsak nazioarteko ISAD(G) arauaren edukietara egokitzen ari dira. Transferentzia, dohaintza, gordailu edo erosketa bidez sartzen diren funts berriak araudi horren arabera deskribatzen dira.

Foru Aldundiaren Liburutegi Historikoko edo Liburutegi Osagarriko funts bibliografikoak liburutegi publikoetarako ezarri den araudiaren arabera katalogatzen dira, eta erregistroak SABINI aplikazioan sartzen dira. 2004. urtean erosketa, dohaintza edo truke bidez eskuratutako 749 monografia katalogatu dira, eta, horrez gain, aldizkako argitalpenen deskribapen analitikoa egiten jarraitu da.

Foru Administrazioaren sailetako eta zerbitzuetako liburutegietan ekonomia- eta administrazio-arloko kudeaketak egiten dituzte egunkariak, aldizkari ofizialak eta, orobat, monografiak eta aldizkako argitalpenak eskuratzeko; eta, horiek kontrolatze aldera, fitxa berezi batzuk prestatzen dira, Centro de Cálculo de Alava S.A. zentroak egindako aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen direnak.

2003. urtean, Agiritegiko Dokumentazioa lantzeko Kudeaketa Integratuko Sistemak eskatutako teknologia guztia aztertu zen, eta urte horrexetan jarri zen. 2004. urtean aplikazio hori era nabarmenean hobetu zen: 3.5 bertsio berria sartu zen, eta bertsio horrek aurrekoaren

# MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

**Subprograma**: **01 ARCHIVOS**

## I. MEMORIA

Los fines fundamentales de este Servicio de Archivos y Bibliotecas son el tratamiento, organización y descripción, custodia y difusión tanto de los fondos documentales históricos y administrativos como del patrimonio biográfico y gráfico en general (fotografías, mapas, planos, carteles, etc.)

El tratamiento de los fondos se lleva a cabo mediante la aplicación de técnicas específicas de organización y descripción, estando actualmente en el proceso de adaptación a la norma internacional ISAD(G) de fondos ya descritos. Los fondos de nuevo ingreso, tanto por transferencia, donación, depósito o adquisición son descritos siguiendo esta normativa.

Respecto de los fondos bibliográficos, bien de la Biblioteca Histórica Foral bien de la Biblioteca Auxiliar, son catalogados siguiendo la normativa establecida para las biblioteca públicas, incorporándose sus registros en el aplicativo SABINI. Durante el año 2004 se han catalogado 749 monografías ingresadas mediante adquisición, donación o intercambio así como la continuación del proceso de descripción analítica de publicaciones periódicas.

En relación con las bibliotecas de los Departamentos y Servicios de la Administración foral se realizan las gestiones económico-adminsitrativas para la adquisición de diarios y Boletines Oficiales así como de monografías y publicaciones periódicas, llevándose su control mediante la elaboración de fichas específicas gestionadas mediante una aplicación informática realizada por el Centro de Cálculo de Alava S.A.

Durante el año 2003 se procedió a la dotación de la tecnología requerida por el Sistema de Gestión Integral de Tratamiento de la Documentación de Archivo cuya implantación se realizó este mismo año. En el 2004 este aplicativo fue considerablemente mejorado mediante la

gaitasunak zabaldu eta baliabide batzuk zentzu eta eraginkortasun gehiagoz garatu zituen. Sistema horri dagokionez, aplikazioaren administratzaileentzako ikastaroa egin zen, eta Agiritegiko teknikariak joan ziren bertara. Era berean, azpiegitura informatikoa mantentzeko sistemak eta agiritegiko eta liburutegiko sistemak kontratatu ziren. Horretarako, aurrekontuko beste partida batzuetatik hartu behar izan zen dirua, aurrekontuaren luzapenak ez baitzeukan horretara berariaz zuzendutako partidarik edo kopururik. Hori dela-eta, ezin izan ziren burutu jatorrizko partidetan ezarrita zeuden jarduerak.

2004. urtean argiri fotografikoen 39.102 erregistro migratu ziren Agiritegiko Dokumentazioa kudeatzeko Sistemara. Prozesu horretan, bi sistema informatiko baliatu ziren, eta horretarako datuen analisi zehatz-zehatza egin behar izan zen, informazio guztia jaso eta nazioarteko ISAD(G) arauei jarraiki definitutako eremuetan sartu ahal izateko. Bestalde, informazio guztia atera zen bost familia-funtsen deskribapenetik; funts bat udalarena zen eta besteak enpresenak ziren. Aplikazio desberdinetan eginda zeuden eta, Arabako Kalkulu Zentroaren arabera, informazioa galtzeko arriskuan zegoen. Hartara, bitarteko sistema batean sartu zuten, eta, era horretan, Agiritegiko sistema bakarrera migratu ahal izan zuten. Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak ohiz kanpoko ekarpen ekonomikoa egin zuen horretarako.

Argazkien funtsak lantzean, López de Guereñu Funtsaren 4.518 positibo 6x6 negatibo profesionalean kopiatu ziren, eta, horrenbestez, funts horrek zeuzkan argazki guztiak formatu horretara aldatu ziren.

Ikerketa bultzatzea eta ondarearen berri zabaltzea dira Zerbitzu honen helbururik nagusienak. Ildo horretan, batetik, teknikariek banakako laguntza ematen dute, bestetik, aretoan bertan ere laguntza ematen zaie erabiltzaileei, eta, orobat, telefonoz, faxez edo posta elektronikoz egindako argibide-eskaerei erantzuna ematen zaie. Horrela, bada, aretoan 1.658 erabiltzaileri eman zitzaien laguntza, eta, horretarako, guztira 6.421 papar-sorta eta 699 monografia kontsultatu ziren, hemerotekako funtsean 1.218 kontsulta egin ziren eta

incorporación de la nueva versión 3.5 que ampliaba sus potencialidades y desarrollaba de forma más eficaz y racional alguno de sus recursos. En relación con este sistema se realizó el curso de administrador de aplicación con la asistencia de los técnicos del Archivo. Igualmente se procedió a la contratación de los mantenimientos de la infraestructura informática y de los sistemas de Archivo y Biblioteca cuyas cantidades tuvieron que ser retrotraídas de otras partidas presupuestarias al no contemplar la prórroga presupuestaria partida ni cantidad específica para ello. Esto supuso el que no se pudiera llevar a efecto las actividades previstas en las partidas de origen.

Durante el año 2004 se procedió a la migración al sistema de Gestión de la Documentación de Archivo de 39.102 registros de documentación fotográfica, soportados por dos sistemas informáticos distintos, lo que requirió, dada su concepción, de un estudio muy pormenorizado de análisis de los datos con el fin de absorber toda la información e incorporarla a campos definidos de acuerdo con la norma de descripción internacional ISAD(G). Asimismo se procedió a extraer la información de la descripción de cinco fondos familiares, uno municipal y otro de empresas, realizadas en aplicativos diferentes,, y de los cuales existía, según informe del Centro de Cálculo de Alava, peligro de pérdida, pasándola a un sistema intermedio el cual posibilitó su migración al sistema único de Archivo. Esto último se ejecutó mediante un aporte económico extraordinario por parte del Departamento de Cultura, Juventud y Deportes.

En el tratamiento de fondos fotográficos se realizó la reproducción en negativo 6x6 profesional de un total de 4518 positivos del Fondo López de Guereñu, dando por concluido con ello, la disponibilidad total de este fondo en este formato.

El apoyo a la investigación y a la difusión del patrimonio, objetivos prioritarios de este Servicio, se lleva a cabo tanto mediante la atención personalizada por parte de los técnicos como a través de la atención en sala y resolución de consultas efectuadas por teléfono, fax o correo electrónico. En este sentido se atendieron a 1658 usuarios en la sala con un total de 6421 legajos consultados, 699 monografías, 1218 consultas del fondo de la hemeroteca y 132 de Boletines Oficiales. En cuanto a consultas técnicas

132 aldizkari ofizial ikusi ziren. Bestetik, 681 kontsulta tekniko egin ziren, atal fotografikoan, historikoan, bibliografikoan eta administratiboan.

ALDEE elkarteari hitzaldi-aretoa laga zitzaion MARC2 formatuko katalogazioari buruzko ikastaroa eman zezan, Arabako Foru Aldundiaren Lege eta Ekonomia Aholkularitzarako Zerbitzuari ere areto horixe laga zitzaion informatikako programa berri bat azaltzeko, eta Aizan Elkarte Psikosozialari era berean laga zitzaion generoko indarkeriari buruzko jardunaldiak egin zitzan. Agiritegiak Arabako Lurralde Historikoko agiritegiei buruzko mintegi bat antolatu zuen.

Lankidetzan jardun zen Vitoria-Gasteizko Udalarekin, “Vitoria-Gasteizko agiritegiak deskubritzen” programaren barruan, eta langileak lanbide-arloko hainbat ikastaroetara, hitzaldietara eta jardunaldietara joan ziren. Era berean, “Arabako ondare dokumentalari” buruzko ikerketa-beken deialdia atera eta adjudikazioa egin zen, eta, horren ondoren, urtebeteko jarraipena egin zen, deialdiko klausulak betez.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

1.- Ondare dokumentala

Funts dokumentalak aztertzen eta berriz antolatzen jarraitu zen, eta, era berean, funtsak beste toki batean kokatu ziren, guneak era egokiagoan banatze aldera. Agiri berriak sartu ziren, dohaintza (Sarrailagintzako funtsa) eta gordailu (Heraclio Fournier funtsa) bidez eskuratuak, eta, orobat, Aldundiaren zerbitzuek eskualdatutakoak. Azken puntu horri dagokionez, guztira 1.415 kutxa eta 75 liburu sartu ziren; gero, horiek erregistratu eta inbentarioan sartu ziren, eta zegokien zerbitzuari bidali zitzaizkion gero.

Helburuaren gauzatze-maila: %100

2.- Ondare bibliografikoa

Aurtengo aldizkako 191 argitalpenei eutsi zaie, lanbide-arloko eta ikerketa bultzatzeko monografiak eskuratu dira, eta erreferentziako obrak ere bai. Sarrera berri guztiak SABINI liburutegi-aplikazioan sartu eta katalogatu dira. Era berean, aurreko urtean

estas fueron un total de 681 de las secciones fotográfica, histórica, bibliográfica y administrativa.

La sala de conferencias fue cedida a la Asociación ALDEE para la impartición del Curso sobre Catalogación en Formato MARC2, al Servicio de Asesoramiento Jurídico Económico de la Diputación Foral de Alava para la explicación de un nuevo programa informático y a la Asociación Psicosocial Aizan para la realización de las Jornadas sobre violencia de género. Por parte del Archivo se organizó un Seminario sobre los Archivos del Territorio Histórico de Alava.

Se colaboró con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en el programa “Descubriendo los Archivos de Vitoria-Gasteiz” y por parte del personal se asistió a diferentes cursos, congresos y jornadas de carácter profesional. Igualmente se convocó y adjudicó las bacas de investigación sobre el “Patrimonio Documental Alavés”, procediendo a su seguimiento a lo largo del año de acuerdo con las cláusulas de la convocatoria.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- Patrimonio documental

Se continuó con el análisis y reorganización de fondos documentales y reubicación de fondos en orden a la racionalización para la mejor ocupación de espacios. Se ingresó nueva documentación por donación (Fondo Cerrajería) y depósito (Fondo Heraclio Fournier) así como por transferencia de los diversos Servicios de la Diputación. Respecto a este último punto se ingresaron un total de 1415 cajas y 75 libros, procediéndose a realizar su registro e inventario remitiéndolo a cada uno de los Servicios.

Grado de cumplimiento: 100%

2.- Patrimonio bibliográfico

Se han mantenido las 191 publicaciones periódicas en curso, adquiriéndose monografías de carácter profesional y de apoyo a la investigación así como obras de referencia. Todos los nuevos ingresos han sido catalogados e incorporados al aplicativo de

bezalaxe, hiriko eta probintziako liburutegiei bikoiztuta zeuden monografiak eskaini eta dohaintzan eman zaizkie.

Helburuaren gauzatze-maila: %100

3.- Ikerkuntza sustatzea:

Arabako ondare dokumentalari buruzko bi ikerketa-beka eman ziren; beka horien gaia honakoa izan zen: “López de Guereñu argazkigintzako funtseko agiriak kudeatzeko eta garatzeko proiektua” eta “Arabako Lurralde Historikoan dauden Musika Sakratuko eskuizkribuzko liburuen inbentarioa eta katalogazioa”

Helburuaren gauzatze-maila: %100

4.- Zerbitzuetako ondare bibliografikoa

Foru Aldundiaren Zerbitzuen aldizkako argitalpenak eta monografiak eta, orobat, egunkariak eta aldizkari ofizialak eskuratzeko kudeatze-lanak egin ziren.

Helburuaren gauzatze-maila: %100

5.- Ondarea zabaltzea

“Vitoria-Gasteizko artxiboak deskubritzea” programan lankidetzan jardutearen ondorioz, 9 institututako, ikastetxetako eta ikastoletako 210 ikasle joan dira artxibo ikustera. Lankidetzaren ardatza izan da informazioaren tratamenduari buruzko praktikak egiteko materiala prestatzea, eta, halaber, monitoreak prestatzea agiritegian dauden agiriei, AFAren historia instituzionalari, Agiritegiko zereginei eta agiriak sartzen diren unetik erabiltzaileek eskuratzeko moduan dauden arte dagoen ibilbideari buruz. Era berean, funts bakoitzaren ezaugarririk berezkoenak hautatu ziren, ikasleei ikusgai jartzeko.

Helburuaren gauzatze-maila: %100

6.- Argazkigintzako agiritegien tratamendua

2004. urtean, Agiritegiko Dokumentazioaren Tratamendurako aplikazioan desberdinak ziren bi sistemek eutsitako 39.102 erregistro aztertu eta

Biblioteca SABINI. Igualmente se ha continuado el ofrecimiento y donación de monografías duplicadas a las bibliotecas públicas de la ciudad y provincia.

Grado de cumplimiento: 100%

3.- Fomento de la investigación

Se adjudicaron las dos becas de investigación sobre “Patrimonio Documental Alavés”, cuya temática fue: Proyecto de Desarrollo y Gestión Documental del fondo fotográfico López de Guereñu” e 2Inventario y Catalogación de Libros Manuscritos de Música Sacra existentes en el Territorio Histórico de Alava”

Grado de cumplimiento: 100%

4.- Patrimonio Bibliográfico de los Servicios

Se gestionó la adquisición de monografías y publicaciones periódicas de los Servicios de la Diputación Foral así como de periódicos y Boletines Oficiales.

Grado de cumplimiento: 100%

5.- Difusión del Patrimonio

La colaboración en el programa “Descubriendo los Archivos de Vitoria-Gasteiz” ha supuesto la visita de 9 Institutos, Colegios e Ikastolas con un total de 210 alumnos. La colaboración se ha centrado en el la preparación del material para la realización de prácticas de tratamiento de la información así como de la preparación de las monitoras sobre la documentación existente en el Archivo, la historia institucional de la DFA, edificio, instalaciones y funciones del Archivo y sobre el recorrido de la documentación desde su ingreso hasta su disponibilidad por los usuarios. Igualmente se realizó una selección de documentos representativos de cada unos de los fondos para su observación por los alumnos.

Grado de cumplimiento: 100%

6.- Tratamiento de archivos fotográficos

Durante el año 2004 se procedió a la migración, previo estudio y análisis de los datos, de 39102 registros soportados por dos sistemas diferentes al aplicativo de

analizatu ziren, eta, horren ondoren haien migrazioa egin zen. Era berean, Guereñu Funtsaren 4.518 positibo 6x6 negatiboan bikoiztu ziren eta Baraibar Funtsa ISAD(G) arauei jarraiki deskribatu zen; aurreneko fasean, Arabako Lurralde Historikoko Agiritegian argazkigintzako funtsen tratamendurako prozedurarako gidaliburura prestatu zen.

Helburuaren gauzatze-maila: %100

Tratamiento de Documentación del Archivo. Igualmente se procedió al duplicado en negativo 6x6 de 4518 positivos del Fondo de Guerreñu y a la descripción del Fondo Baraibar según las normas ISAD(G) y elaboración, en una primera fase, del manual de procedimiento para el tratamiento de fondos fotográficos en el ATHA.

Grado de cumplimiento: 100%

## 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA

**Programa:** 82 KULTURA ETA KIROL JARDUERAK

**Azpiprograma: 02 MUSEOAK**

### I. MEMORIA

Museo Zerbitzuak 2004. urteko ekitaldian zehar garatutako programa ICOM-ek museoa definitzerako orduan adierazten dituen funtzioak garatzen eta helburuak betetzen saiatzen da.

Funtzio horiek zaintza, katalogazio, ikerkuntza eta zabalkuntzaren programen barruan sar ditzakegu.

1. Funtsak kontserbatzeko, katalogatzeko, eskuratzeko eta gehitzeko programa. Hurrengoak ahalbideratzen dituen funtzio garrantzitsuena eta lehenengoa dela pentsa dezakegu.
2. Ikerkuntza-programa. Museoek ikerkuntza-euskarriak emateaz gain, ikerkuntza zentroak ere badira. Museoak ikerkuntza, azterketa zientifiko, doktore-tesi eta abarren euskarria izaten dira askotan.
3. Zabalkuntza-programa. Museoetan egin den zereginik enblematikoenetako bat dela jo dezakegu; honen bidez, museoetan egindako lanak jendaurrean aurkezten dira eta lan horrek museoen funtzio soziala justifikatzen du.

   Jendea museoetara hurbiltzearren eta museoak jendearengana hurbiltzearren, kultura asteak, biltzarrak, bisita gidatuak eta hitzartuak, ikastaroak, lantegiak, erakusketak, argitalpenak, bideo edizioak eta hitzaldiak antolatzen dira.

   2004ko ekitaldian zehar Arabako Foru Aldundiaren museoak ikustera joan direnen kopurua 161.850 izan da, horietatik 118.253 banakako bisitak izan dira, eta 43.597 elkarteetakoak.
4. Museo berriak sortzeko programa. Museoen Zerbitzuak Hirigintza Sailarekin ari da lanean, Arkeologia Museo berriaren proiektuan, eta Fournier Karta Museoaren museografian.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

I. Funtsak kontserbatzeko, katalogatzeko, eskuratzeko

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004

**Departamento:** 70 CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

**Programa:** 82 ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS

**Subprograma: 02 MUSEOS**

### I. MEMORIA

El programa anual desarrollado por el Servicio de Museos durante el ejercicio 2004 intenta cumplir los objetivos y desarrollar las funciones que el ICOM señala como definitorias de un museo.

Estas funciones las podemos concretar en programas de conservación, catalogación, investigación y difusión.

1. Programa de Conservación, Catalogación y Adquisición e Incremnto de Fondos. Podemos considerar esta función como la primera y más básica de un museo, que hace posible las restantes.
2. Programa de investigación. Los museos no sólo facilitan los soportes de la investigación, sino que actúan como auténticos centros de investigación. Son soporte de muchas investigaciones, revisiones científicas, tesis doctorales, etc.
3. Programa de Difusión. Podemos considerar que una de las tareas más emblemáticas de los museos es la difusión y definirla como la presentación pública de los trabajos realizados en los mismos y que justifica la función social de los museos.

   Se organizan semanas culturales, congresos, visitas guiadas y concertadas, ediciones de vídeos, conferencias y mesas redondas con el objetivo de acercar al público los museos y viceversa.

   En el ejercicio 2004, el número de visitantes a los Museos de la Diputación Foral de Álava ha sido de 161.850, de los que 118.253 han sido visitas individuales y 43.597 visitas colectivas.
4. Programa de Creación de Nuevos Museos. Desde el Servicio de museos se está trabajando con el Departamento de Urbanismo en el proyecto del nuevo Museo de Arqueología y en la museografía del Museo Fournier de Naipes.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

I. Programa de Conservación, Catalogación y

eta gehitzeko programa.

A. Arkeologia Museoa. Museoak funts gehiago ditu, lurraldean izan diren indusketetan lortu den materialarekin; besteak beste, nabarmendu behar da Atxosten, Iruñan, Rubinan eta Santa Maria katedralean aurkitutakok. Bestalde, salbuespen gisa baina, gordailu partikularrak aipatu behar dira.

Probintziako indusketen kontserbazioa zaindu da.

B. Arte Ederren Museoa. Eskuratutako material berria katalogatzen, dokumentatzen eta argazkiak egiten jarraitu da.

Amarica Fundazioak museoan bertan jarri zituen funtsen argazkigintzako materiala berrikusi eta digitalizatu da, helburu horretarako sortutako datu-base batean.

500 erregistro berri katalogatu dira, eta aldizkako argitalpenen hustuketa egin da.

Natura Zientzien Museoa. Bildumak handitu dira, 10.245 ale baitaude (botanika, 4.313, geologia, 2.318, eta zoologia, 3.614).

C. Fournier Karta Museoa. “Tarazona” eta “Rasillo” kartak zaharberritzen jarraitu da, 2.000 karta-sortako kaxa berezietan paketatu dira, eta aurkeztutako kartek errotulazio berria dute.

1995. urteko minifitxak berrikusi eta osatu dira, eta 1991. eta 1992. urteetan jasotako karta-sorten fitxa osoa egin da.

Ediciones El Pradoren faszikuluetan aurkeztuko diren karta-sorten fitxak aztertu eta proposatu dira.

D. Arma Museoa. Tapizatzeko lanak egiten eta errotulazio berria jartzen jarraitu da.

Dauden fitxak berrikusi eta osatu dira. Suzko armen fitxa osoa bete da.

Adquisición de Fondos.

A. Museo de Arqueología. El museo ha incrementado sus fondos a partir de excavaciones realizadas en yacimientos del territorio, destacando los de Atxoste, Iruña, Rubina y Catedral de Santa María, y más excepcionalmente a través de depósitos particulares.

Se ha atendido a la conservación de los yacimientos de la provincia.

B. Museo de Bellas Artes. Se han continuado los trabajos de catalogación, documentación y fotografiado de las nuevas adquisiciones.

Se ha procedido a la revisión y digitalización del material fotográfico de los fondos depositados por la Fundación Amárica en el propio museo en una base de datos específica para tal fin.

Se ha realizado la catalogación de 500 nuevos registros, así como el vaciado de las publicaciones periódicas.

Museo de Ciencias Naturales. Las colecciones se han incremetado en un número total de 10.245 ejemplares (botánica, 4.313, Geología, 2.318, y zoología, 3.614).

C. Museo Fournier de Naipes. Se ha continuado con la restauración de las barajas “Tarazona” y “Rasillo”, empaquetado en cajas especiales de 2.000 barajas, nueva rotulación de las barajas presentadas.

Se han revisado y completado minifichas del año 1995 y se ha realizado la ficha completa de las barajas recibidas en los años 1991 y 1992.

Estudio, proposición y fichas de las barajas que se presentarán en los fascículos de Ediciones El Prado.

D. Museo de Armería. Continuación de los trabajos de tapizado y nueva rotulación.

Revisión y complementación de las fichas existentes. Realización de la ficha completa de las

II. Ikerkuntza programa.

A. Arkeologia Museoa. Ikerkuntza sustatu da, eta, horretarako, besteak beste, ikerketa-beka bat eman da honako proiektu hau egiteko: "1987. urteko Arabako Gutun Arkeologikoan jasotako informazioa berritzeari buruzko Plan Zuzentzailea egituratzea".

B. Arte Ederren Museoa. Hainbat ikerketa hasi dira XIX. mendeko Espainiako arte-lanak dokumentatzeko, batez ere diputatuen eta probintziako arbasoen erretratuak lantzeko, gehienbat Arabako Foru Aldundiaren egoitzan eta Jauregian zeudenak, eta, orobat, kronologia horretakoak diren eta oro har gutxi ikertuta dauden beste pieza batzuk aztertzeko.

Museologiako urteko beka Probintziako Agiritegian agiriak aztertzen aritu den ikerlari bati eman zaio; "Arte Ederren Museoko bildumaren prestakuntza eta bilakaera aztertzeko iturrien bilaketa" titulua duen lanean aritu da.

C. Natura Zientzien Museoa: Guztira 25 ikerketa-proiektu egin dira, museoaren funtsak erabiliz.

19 artikulu zientifiko argitaratu dira, eta lan horietan museoko bildumen aleak aipatu, azaldu edo dokumentatu dira.

Ikerketa-beka bat eman da honako proiektu hau garatzeko: "Natura Zientzien Museoko Anbar Baltikoaren bilduma aztertzea eta katalogatzea".

E. Fournier Karta Museoa. Ediciones Pradoren faszikuluetan aurkeztuko diren karta-sorten fitxak aztertu eta proposatu dira. Hainbat ikertzaileri eta kartekin interesatuta dauden lagun askori erantzun egin zaie.

F. Arma Museoa. Napoleon Bonapartek 1808. urtean Vitoria-Gasteizen izan zuen egonaldiari buruzko azterketari ekin zaio; Arma Museoko

armas de fuego.

II. Programa de Investigación.

A. Museo de Arqueología. Se ha promovido la investigación y entre otros trabajos, se ha concedido una beca de investigación para el proyecto: "Estructuración de un Plan Director sobre la renovación de la información contenida en la Carta Arqueológica de Álava del año 1987"

B. Museo de Bellas Artes,. Se han iniciado diversas investigaciones para la documentación de las obras de arte español del siglo XIX, principalmente de retratos de Diputados y Padres de la Provincia, procedentes en su mayoría de la sede de la Diputación Foral de Álava, la Casa Palacio, así como de otras piezas de esta cronología, poco estudiadas en su conjunto.

La beca anual de museología se ha concedio a una investigadora que bajo el título "Búsqueda de fuentes para estudiar la formación y la evolución de la colección del Museo de Bellas Artes", ha realizado un rastreo documental en el Archivo Provincial.

C. Museo de Ciencias Naturales,. Se han realizado 25 proyectos de investigación utilizando los fondos del museo.

Se han publicado 19 artículos científicos en los que se citan, figuran o se documentan ejemplares de las colecciones del museo.

Se ha concedido una beca de investigación al proyecto denominado: "Estudio y catalogación de la colección del Ámbar Báltico del Museo de CC.NN"

E. Museo Fournier de Naipes. Estudio, proposición y fichas de las barajas que se presentarán en los correspondientes fascículos de Ediciones Prado. Se ha respondido a innumerables investigadores y a otros interesdos por los naipes.

F. Museo de Armería. Comienzo del estudio acerca de la estancia de Napoleón Bonaparte en Vitoria, el año 1808; organización de la Asamblea de los

Lagunen Batzarra antolatu da; museoko altzairuko piezen eta armaduren erosioa aztertu da.

Ikerketa museologikorako beka bat eman zaio "Arma Museoko piezen katalogoko fitxategi zehatza eta nahitaez gaurkotu beharrekoa" izeneko proiektuari.

III. Zabalkuntza programa.

A. Didaktika Arabako Foru Aldundiaren museo guztietan ikasleei zuzendutako lantegiak eta bisita iruzkinduak, espezializatuak eta interakziozkoak egin dira ikasturte osoan.

Arreta bereziaz zaintzen dira lankidetza-programak, hau da: Gazteria Sailarekin, HARA BADA ARABA DA kanpaina; Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailarekin, bai argitaratzen dituen argitalpenak, bai Gasteiztxo programa, eta, halaber, Vitoria-Gasteizko Udaleko Biltzar eta Turismo Zerbitzuko bulegoarekin museoetan elkarrizketak prestatzen dira, bisita gidatuak eta bestelakoak egiten dira, hiriko erdigune historikotik egiten diren ibilaldietan, eta ibilaldien barruan dauden museoak eskaintzen dira. Aurten batera jardun gara lanean bulego horrek Fitur Turismo Azokarako argitaratu duen turismoa sustatzeko materiala prestatzen; izan ere Arabako Arte Ederren Museoa izan da hautatu den gaia. Ikastetxeen kultura-astean jarduera bereziak prestatu dira. Era berean harremanetan jarraitu dugu EITBren programa batzuekin, hala nola, BETI ZU programarekin; eta museoak zentro itunduak dira Beti Zu klubeko txartela duten pertsonentzat.

Artium Museoaren Hezkuntza Sailarekin batera, udalekuak antolatu dira uztailean Arte Ederren Museoan eta Arkeologiakoan, aurreneko aldiz antolatu ere.

2004ko kanpaina. Iruñako bisita gidatuak. Apirilaren 1ean Lurmen enpresarekin batera kanpaina berri bati ekin genion, eta bisita ugari

Amigos de los Museos de Armas; estudio sobre la erosión de las piezas de acero y de las armaduras del museo.

Se ha concedido una beca de investigación museológica al proyecto denominado "Fichero exhaustivo y detallado de necesaria actualización del catálogo de piezas del Museo de Armería"

III. Programa de Difusión.

A. Didáctica. En todos los museos de la Diputación Foral de Álava se han llevado a cabo las visitas comentadas, especializadas, interactivas y los talleres dirigidos a escolares a lo largo de todo el calendario académico.

Se presta especial atención a los programas de colaboración, esto es: con el Departamento de Juventud, la Campaña HARA BADA ARABA DA, con el Departamento de Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, tanto en las publicaciones que edita como con el programa Gasteiztxo, preparando entrevistas en los museos, visitas guiadas, etc., con la Oficina de Turismo y Congresos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en sus visitas por el Casco Histórico de la Ciudad, ofreciendo los museos que se encuentran dentro de los recorridos. Este año hemos trabajado conjuntamente en la preparación del material de promoción turística que esta oficina ha editado para la Feria de Turismo Fitur, ya que el tema elegido ha sido el Museo de Bellas Artes de Álava. Preparación de actividades específicas en colegios en su semana cultural También seguimos manteniendo contactos con programas de EITB como BETI ZU siendo los museos centros concertados para los poseedores del Carnet del Club Beti Zu.

Junto con el Departamento de educación del Artium el mes de julio y por primera vez se han organizado Colonias de Verano en los museos de Bellas Artes, y Arqueología.

Campaña 2004. Visitas guiadas en Iruña. El 1 de abril y junto a la empresa Lurmen, iniciamos la

izan zituen

Asteburuetako aisialdiko jarduerak Arte Ederren Museoan "Ipuin-kontalariak" izan dira, eta Arkeologia eta Karta Museoan "Bisita dinamizatuak". Erdi Aroko Merkatuarekin batera, familiako jarduerak eskaini dira (haurrentzako lantegiak eta bisita dinamizatu bereziak gurasoentzat).

Eguberriko programa. Arkeologia Museoan "Historiaren historia" lantegia eta Arte Ederren Museoan "Orainean harrapaturiko iraganeko artistak " lantegia egin dira. Lantegi horiek haurrentzat zein helduentzat dira.

Aurten hiru beka kudeatu dira museoei aplikatutako ikerketa pedagogikoaren eremuan; hona hemen proiektuak: "Arabako Arkeologia Museoko lantegi didaktikoak", "Arabako Arkeologia Museoaren azterketa historiografikoa, maleta didaktikoa sortzeko baliatuko dena", eta "Tarotari buruzko aldizkako erakusketa".

Museoetako aldi baterako erakusketak

Arte Ederren Museoan: "Carlos de Haes Prado Museoan" eta "Pajarita taldea"

Arkeologia Museoan: "Harri bat, mundu bat".

Natura Zientzien Museoan: "Arabako itsasoak"

Fournier Karta Museoan: "Atzoko eta gaurko tarotak"

Arma Museoan: "Napoleon Gasteizen". Batailak eta soldaduak Independentziako Gerlan".

Arabako herrietatik dabiltzan erakusketa ibiltariak:

Euskal paisaiak, Valdegovíako argazkiak, Aloria eta erromanizazioa, San Juan Ante Portam Latinum, lurretik kanpoko objektuak, T. Rex, XIX.

nueva campaña con gan afluencia de visitas.

Actividades de ocio los fines de semana. En el Museo de Bellas Artes "Cuentacuentos" y "Visitas Dinamizadas", en los Museos de Arqueología y de Naipes, coincidiendo con el Mercado Medieval, se ofrecen "Actividades en Familia" (Talleres para niños y visitas dinamizadas especial para padres).

Programa de Navidad. En el Museo de Arqueología, se han realizado los talleres "Historia de la historia" y en el Museo de Bellas Artes, "Artistas del pasado atrapados en el presente". Estos talleres están ditigidos tanto a niños como a adultos.

Este año se han gestionado tres becas en el campo de la investigación pedagógica aplicada a los museos a los proyectos: "Talleres didácticos en el Museo de Arqueología de Álava", "Estudio historiográfico sobre el Museo de Arqueología de Álava que servirá de base para la creación de una maleta didáctica" y "Exposición temporal sobre el Tarot".

Exposiciones temporales en los museos.

En el Museo de Bellas Artes: "Carlos de Haes en el Museo del Prado" y "El Grupo Pajarita"

En el Museo de Arqueología: "Una Piedra, un mundo".

En el Museo de Ciencias Naturales: "Los Mares Alaveses".

En el Museo Fournier de Naipes:" Tarots de ayer y hoy".

En el Museo de Armería "Napoleón en Vitoria. Batallas y soldados en la Guerra de la Independencia".

Exposiciones itinerantes por los pueblos de Álava.

Paisajes Vascos, Fotografía de Valdegovía, Aloria y la romanización, San Juan Ante Portam Latinum, Objetos extraterrestres, T. Rex,

mendeko karta zoragarriak eta Labastida eta Buradón artearen historian.

Maravillosos Naipes siglo XIX y Labastida y Buradón en la Historia del Arte.

**Azpiprograma: 03 ZAHARBERRITZEAK**

**I. MEMORIA**

Gure helburu nagusia Arabako Lurralde Historiakoaren ondare higigarria eta arkeologia, bibliografikoa, agiri- eta paleontologia-ondarea zabaltzea denez, gure ekintzen ardatz nagusiak hauek izan ziren:

- Arabako ondare higigarria eta arkeologikoa, agiri- eta paleontologia-ondarea gordetzea, aztertzea, ikertzea eta zabaltzea.
- Gure kultura-ondarearen narriadurari aurrea hartzea, ikerketen eta azterketen bitartez eta horien emaitzen aplikazioaren bitartez.
- Beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin elkarlanean aritzea gure kultura-ondarearen babesa bermatzeko.
- Estatuko eta nazioarteko unibertsitateekin lankidetzan aritzea ondarearen zaintzari eta babesari buruzko ezaguerak elkartrukatzeko.
- Burututako lanak eta esku-hartzeak behar bezala zabaltzea, herritarrei ondarearen babesari buruzko informazioa emateko eta horretan inplikatzeko.
- Eskuratutako objektu arazotsuenen egoera zaintzea.
- Zaharberritze Zerbitzuko teknikarien ezagutzak eta prestakuntza eguneratzea.

**II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA**

1. Arabako ondare higigarria eta arkeologikoa, agiri- eta paleontologia-ondarea gordetzea, aztertzea, ikertzea eta zabaltzea

   Ondare higigarriari dagokionez, nabarmendu behar da G. De Crayer-en “Descendimiento” margolana zaharberritzeko lanak bukatu direla, Olanoren San Bartolomeren erretaula zaharberritzeko lanekin aurrera egin dela, Lapuebla de Labarcako erretaula bukatu dela eta Morillas-en erretaula nagusia zaharberritzeko lanen aurreneko aldia burutu dela.

**Subprograma: 03 RESTAURACIONES**

**I. MEMORIA**

Siendo nuestro objetivo principal conservar, estudiar, investigar y difundir el Patrimonio Mueble, Arqueológico, Bibliográfico, Documental y Paleontológico del Territorio Histórico de Alava, las actividades principales se centraron en:

- Restaurar y conservar las obras del Patrimonio Mueble, Documental, Arqueológico y Paleontológico del Territorio Histórico de Alava.
- Prevenir el deterioro de nuestro Patrimonio Cultural a través de los estudios e investigaciones y de la aplicación de sus resultados.
- Colaborar con otras Instituciones, públicas o privadas, para garantizar la salvaguarda de nuestro Patrimonio Cultural.
- Colaborar con Universidades nacionales y extranjeras para el intercambio de conocimientos en materia de conservación y restauración del patrimonio.
- Difundir adecuadamente los trabajos e intervenciones realizadas para informar e implicar correctamente al ciudadano en la salvaguarda de su Patrimonio.
- Vigilar el estado de conservación de los objetos más problemáticos intervenidos.
- Actualizar los conocimientos y formación de los técnicos del Servicio de Restauraciones.

**II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

1. Conservar, estudiar, investigar y difundir el Patrimonio Mueble, Arqueológico, Documental y Paleontológico del Territorio Histórico de Alava.

   En Patrimonio Mueble cabe destacar la finalización de la restauración del cuadro del “Descendimiento” de G. De Crayer, la continuación de la restauración del retablo de San Bartolomé de Olano, se finalizó el retablo de Lapuebla de Labarca y la primera fase del Retablo Mayor de Morillas. Se realizaron varias tallas exentas y obras menores del Museo Diocesano de Arte

Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoaren eta Arte Ederren Museoaren tailu exentu batzuk landu dira, eta, era berean, Labastidako "Inmaculada" izeneko mihisea eta Belen Napolitanoa zaharberritu dira Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museora eramateko.

Esku-hartze horiek egin aurretik sakon aztertu dira zatirik garrantzitsuenak, erabilitako tekniken alderdirik ezezagunen berri jakiteko

Arkeologiaren atalean 2004. urtean 37 aztarnategitatik jasotako 172 objektu arkeologiko aztertu dira; hona nabarmenenak: San Prudentzio basilika, Santa Maria katedrala, Arcaya, Las Ermitas, Iruña, Viñaspreko gainaldea, Zaldiarango gaztelua, Lalastrako kastroa, Itaida iparraldeko trikuharria, S. Julian eta Sta. Basilisa ermita, Laguardiako S. Juan eliza, Labastida, Los Husos, Mariturri, Maeztuko Santa Eufemia, Solacueva, Tejazos eta Vitoria-Gasteizko gune batzuk.

Agiri grafikoen eta fotografikoen atalari dagokionez, Salvador de Azpiazuren 81 marrazki, Francisco de Goyaren 80 grabatu eta Fournier Museoaren 2.000 karta landu dira, Gazeoko Administrazio Batzarraren Agiritegi Historikoa finkatu da, Yécora/Iekorako 3 kantu-liburu zaharberritu dira eta hainbat lan egin da Artium Museorako, Arabako Lurralde Historikoko Agiritegirako eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Apaizgaitegiaren Liburutegirako.

2. Gure kultura-ondarearen narriadurari aurrea hartzea, ikerketen eta azterketen bitartez eta horien emaitzen aplikazioaren bitartez

Bisitak egin ziren hainbat elizaren eta baselizaren datu klimatikoak hartzeko, eta gero grafikoak eta estatistikak egin ahal izateko. Horren helburua zaharberritutako obrak —eta besteak ere— behar bezala mantenduko direla bermatzea da.

Era berean, aurreko urteetan bezala, museo batzuetan dauden oszilazio termikoak kontrolatzen jarraitu da.

Pieza interesgarri batzuei buruzko azterlan

Sacro y del Museo de Bellas Artes, así como la restauración del lienzo "Inmaculada" de Labastida y el Belen Napolitano con destino al Museo de Arte Sacro de Álava.

Estas intervenciones han estado acompañadas de un estudio en profundidad de las piezas más importantes, centrándose éste en los aspectos más desconocidos de las técnicas empleadas.

La sección de Arqueología ha tratado durante el año 2004 un total de 172 objetos arqueológicos procedentes de 37 yacimientos, entre los que destacamos los siguientes: Basílica de San Prudencio, Catedral de Santa María, Arcaya, Las Ermitas, Iruña, Alto de Viñaspre, Castillo de Zaldiaran, Castros de Lalastra, Dolmen de Itaida Norte, Ermita de S. Julián y Sta. Basilisa, Iglesia de S. Juan de Laguardia, Labastida, Los Husos, Mariturri, Santa Eufemia de Maeztu, Solacueva, Tejazos y diversos puntos de Vitoria-Gasteiz.

La sección de Documentos Gráficos y Fotográficos ha tratado dibujos 81 dibujos de Salvador de Azpiazu, 80 grabados de Francisco de Goya, 2.000 barajas del Museo "Fournier", la estabilización del Archivo Histórico de la Junta Administrativa de Gaceo, restauración de 3 cantorales de Yécora y diversas obras para Artium, Archivo del Territorio Histórico de Alava y la Biblioteca del Seminario Diocesano de Vitoria.

2. Prevenir el deterioro de nuestro Patrimonio Cultural a través de estudios e investigaciones y de la aplicación de sus resultados.

Se realizaron visitas y tomas de datos climáticos de varias iglesias y ermitas para confeccionar gráficos y estadísticas y asegurar la conservación tanto de obras restauradas como la de obras pendientes de intervención.

De igual forma se han seguido controlando como en años anteriores, las oscilaciones climáticas de algunos museos.

Se llevaron a cabo estudios específicos sobre algunas

berariazkoak egin dira, pieza horiek izan ditzaketen patologiak hobeto ezagutzeko, hala nola, RX, UV, IR, laborategiko analisia.

3. Beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin elkarlanean aritzea gure kultura ondarearen babesa bermatzeko.

   Zentzu honetan hainbat organo eta erakunderekin aritu gara elkarlanean; hona hemen zein diren: Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Sailaren Ondare Zerbitzua, Museo Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Andaluziako Batzarraren Ondare Historikoaren Institutu andaluziarra, Madrilgo Ondare Espainiar Historikoaren Institutua eta beste instituzio eta erakunde europar, latinoamerikar eta amerikar batzuk. Elkarlan hori behar bezalakoa eta emankorra izan da. Era berean, Guardia Zibileko kideek gure instalazioak ikusi ondoren, bide bat zabaldu da zerbitzu horrekin lankidetzan aritzeko eta kontsultak argitzeko. Helburu horren betetze-maila %70ekoa izan dela esan daiteke.

4. Unibertsitateekin eta fakultateekin elkarlanean aritzea

   Gaur egun, EHUko Arte Ederretako Fakultatearekin eta Parisko Unibertsitateko La Sorbona Pabiloiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenak daude abian; hitzarmen horien bidez, ikasketen azken urteko ikasleak hartzen dira praktikak egiteko, hala Altzarien Ondarean nola Arkeologian. Praktika horiek unibertsitateko prestakuntzaren barruan sartzen dira eta dagozkien kredituak jasotzen dituzte.

5. Burututako lanak eta esku-hartzeak behar bezala zabaltzea herritarrei ondarearen babesari buruzko informazioa emateko eta horretan inplikatzeko.

   Egindako lanen zabalkunderako, hainbat artikulu eta argitalpen idatzi dira, hala nola, 2003. urtean zaharberritutako Sert-en “La Siesta de los Segadores” lanaren errestaurazio-lanari buruz egindakoa.

   Helburu hori zehazteko, ikastaroak eman zaizkie errestauratzaileen elkargo profesionalei, eta Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak eta haren prentsa-kabineteak jakinarazpenak egin dituzte.



piezas de interés, enfocados a un mejor conocimiento de las patologías que pudieran presentar, como los realizados con RX, UV, IR, análisis de laboratorio.

3. Colaborar con otras Instituciones, pública o privadas, para garantizar la salvaguarda de nuestro Patrimonio Cultural

   En este sentido la colaboración, tanto con el Servicio de Patrimonio del Departamento de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente, como con el Servicio de Museos, la Universidad del País Vasco y el Instituto Andaluz de Patrimonio Histórico de la Junta de Andalucía, el Instituto de Patrimonio Histórico Español de Madrid y otras instituciones y organismos europeos, latino americanos y americanos, ha sido satisfactoria y fructífera. Igualmente, tras la visita a nuestras instalaciones de miembros de la Sección de Patrimonio de la Guardia Civil se ha abierto una línea de colaboración y consultas con este Servicio. El cumplimiento de este objetivo se puede valorar en un 70%

4. Colaborar con Universidades y Facultades

   Actualmente existen programas de colaboración con la UPV, Facultad de Bellas Artes, y con la Universidad de París, Pabellón La Sorbona, para recibir estudiantes en prácticas del último año de carrera, tanto de Patrimonio Mueble como en Arqueología. Estas prácticas forman parte de su formación universitaria y cuentan con los créditos correspondiente.

5. Difundir adecuadamente los trabajos e intervenciones realizadas para informar e implicar correctamente al ciudadano en la salvaguarda de su Patrimonio.

   La difusión de los trabajos realizados se ha llevado a cabo mediante algunos artículos y publicaciones, como la realizada sobre la restauración de “La Siesta de los Segadores” de Sert, restaurada en 2003.

